

HERNANIKO BAKARDADEAREN MAPA



**ANA MALAGONEN LASAI, EZ DA EZER GERTATZEN
LIBURUAREN IRAKURRALDI IBILTARIKO PRESTATUA
(2016/1/2)**

01 LEHENENGO HILDAKOA

Nire bizitzan ikusi nuen lehenengo hildakoa emakume bat izan zen. Gurasoen etxe parean dagoen ibaitik atera zuten suhiltzaileek, nekez. Polizia agertu zen. Eta prentsa. Eta jakin-mina zuten ibiltariak. Hilketa bat zela esan zuten hasierako zurrumurruek. Globo bat bezala puztuta zegoen, baina ez zuen globoen kolore bizi hori. Traje marroi bat zeraman, eta ilea ere marroia zuen. Ez zen ederra, marroia baizik. Udazkeneko hostoak zituen gorputzera itsatsirik. Hila dena hildakoari pega eginda.

02 PLAYBACK

Ekainek, bere Ekain maiteak, asteko lezioa txistu erakustaldi bat bilakatzen zuen bitartean, andereñoak aldameneko lagunarekin hitz egiten harrapatu ninduen, eta musika gelako oholtza txikiaren gainean Ekainekin batera jotzera zigortu. Bazekien musikarako nuen talentua eskasa zela. Bazekien baita ere, Ekain bertuosoaren aldamenean, erridikuluak eragindako lotsak fulminatu, eta isildu egingo nintzela ikasturte guztirako. Hala izan zen, bai. Une hartan isildu egin nintzen eta hatzak mugitzen hasi: Ekainek pieza hura maisutasunez jotzen zuen bitartean, nire hatzak dantzan ibili ziren, nire arnasa beste nonbait, begiak itxirik eta burua auskalo non.

Ez nuen nota bakar bat jo, baina nire playback-a izugarri ona izan zela esan zidaten. Sentimendu handikoa.

03 KARAOKEA

Lagun batek eraman ninduen zure herrira. Festak ziren. Lagunaren lagunak ezagutu nituen. Lagunaren lagunak ere bai. Alkohola. Erretzeari utzi ondorengo zigarro errudunak. Periskopia goian, radarra martxan. Baina zu ez zinen inondik agertzen. Agertu zen bakarra lepoko min bat izan zen, alde batera eta bestera begiratzen ibiltzeagatik. Amore eman nuen; vodka goraino zuen edalontzi batean utzi nuen nire txalupa nora ezean. Ez dakit nola amaitu nuen karaoke batean, txanda eskatzen. Nire desafinazio kronikoak ekarri dizkidan konplexu eta lotsa guztiak bigarren ilaran aparkatu nituen, kanpoan. Mucedades-en Eres tú hura birrintzen nuen bitartean sartu zinen tabernan. Ez da inoiz "eres tú como el fuego de mi hoguera" hain barrutik eta hain literalki oihukatu.

04 ATEAREN ERANTZUNA

"Zer gara? Bikotea ala maitaleak?" Txostenak arakutzen zituen bitartean erantzunaren bila ari zela imajinatu nahi izan zuen. Hogeita hamabigarren orrialdeko grafikoan. Hirurogeita hamazazpigarren orrialdeko taulan. Sostengatzen zuen atearen hutsune ilunetik alde egin zuen. Egin gabeko galderen zulutik.

05 BETILEEN HEGALDIA

Gogoratzen txikitako ohitura hura? Betile solte bat topatu, esku gainean jarri eta, putz egitean hegan egiten bazuen, instant horretan pentsatzen ari zinen desioa beteko zitzaizun. Ba, nik muturrera eraman nuen hura. Betileak kentzen nituen desioak konplitzeko. Edo konplitu zitezkeela sinesteko, behintzat. Matematikako ariketak ondo burutzea. Ikaskideen artean lagunak egitea. Unairen jaramon pixka bat. Bazkaltzeko arraiarik ez, mesedez.

Kimioterapian dagoen norbaiten begirada jarri zitzaidan. Defentsarik gabekoa.

06 MENDEKU HEMORRAGIA

Erosketa guztiak zeneramatzan poltsa hartatik pistola hartu zenuenean, ez zenuen pentsatu. Ez zitzaizun burutik pasa ere gai izango zinela. Egingo zenuela. Irribarre hori ikusi zenuenean. Haren hitzak entzun zenituenean. Goxo. Leun. Mantso. Barkamena eskatzen zizuten begi horiek. Ahaztu zenezan, ahotsak. Konponbideren bat egongo zela. Baina mendekuak zure zainak hautsi zituen, mendeku hemorragia bat izan zenuen gorputz osoan, eta mendekuaren korronteak bultzatu zuen zure hatza. Zure bala. Desastre hura.

07 BANAKETAK

Serio zeuden gurasoak bi ahizpei begira. Ez zuen gaizki egindako ezer gogoratzen. Arratsaldean parkean ibili zen, beti bezala, auzoko lagunekin. Ez zen ezer berezirik gertatu. Ez haserrerik. Ez istripurik.

“Zer egin ote duzu oraingoan”, esan zion Martari belarrira.

“Zer egin ote duzu zuk, nik ez dut ezer egin”.

“Zuen aitak eta biok banatu egin behar dugu”.

“Elkar maitatzeari utzi diogu eta hoberena dela pentsatu dugu”.

“Baina zuek maite zaituztegu, asko maite zaituztegu”. Isilunea.

“Nik ez dut Marta maite, banatu naiteke ni ere?”.

“Bai, guk ere banatu egin nahi dugu”.

Isilune ozenago bat.

08 ODOL BEROAN

Hil ginenean ondo geunden, geure bizitzen gorenean. Gazteak ginen, beldurrik gabeko axolagabeak. Hil ginenean ez genien gurasoei ez baimenik, ez barkamenik eskatu. Ez genuen hil egingo ginela abisatzeko etxera deitu. Tekila hura guztia edan genuen. Gatz eta limoi zaporeko muxu hura eman, bihurtune batean. Metala, haragia eta laztanak nahastu zitzaizkigun 110 kilometro orduko abiaduran. Bizitzeko gogo biziz agurtu genuen heriotza. Gure jantzi ederrenekin. Odol beroan.

09 KREDITUA

Gasolindegian ezagutu zuen depositua eta bere fantasiak betetzen zituen Ander. Asteazken goizeko txandan, 7:45ak aldera, agertzeko ohitura zuen. Edo beharra. Automobilean gelditzen ziren gizon trajedun pare baten konpainian, noizean behin. Bakarrik, gehienetan. Diesela eta txikle pakete bat kobratzen zizkion, eta ezohiko irribarrea oparitu. Kreditu txartelarekin batera ematen zion nortasun agiriari begiratzeko behar zuena baino denbora gehiago hartzen zuen. Parean zuen Anderren aurpegiarekin behin eta berriz alderatzen zuen argazkia. Asteazken egunsentien zain izaten zen, ez zuen Ander ostiral arratsalde hartan gasolindegian espero. “Kobratu iezadazu hau ere, mesedez” esan zion. Kreditu txartela hartu zuen. Anderren nortasun agiria, semeak eskatutako gusanito poltsaren ondoan utzi zuen.

10 ORDAINDUKO DIZUT

Kostaldeko errepidetik gindoazen, gizona, atzean generaman bere semea eta ni. Hirurak isilik. “Ordainduko dizut, dena ordainduko dizut”, esan zuen orduan gizonak, eta patrikatik sobre gizen bat atera zuen, diru mordo batekin. “Gelditu automobila, mesedez”. Jaisteko eskatu zidan ondoren. Egiten ari nintzena gehiegi pentsatu gabe, dirua hartu eta jaramon egin nion. Haizeak gogor eta hotz jotzen zuen paraje hartan. Gizonak nire lekua hartu zuen, bolantea biratu eta ahal izan zuen guztia azeleratu. Amildegitik behera erori zen.

Diruarekin ehorztetxerako automobil berri bat erosi dugu. Potentzia handikoa da.

11 GRAND PRIX

Inork ez du Roland Ratzenberger gogoratzen. Hogeita hamalau urte zituen austriarrak Formula 1ean debuta egiteko aukera heldu zitzaionean. Lehenengo lasterketarako ez zuen sailkatzerik izan, bigarrenean paper duina egin zuen. Hirugarrena San Marinoko Sari Nagusia zen, Imolan.

Sailkapeneko larunbata. Gilles Villeneuve deituriko bihurgunean, 310 km/orduko abiaduran zihoala, aurreko aleroia askatu eta hormaren kontra joan zen zuzenean. Kolpearen ondorioz, bizitza, desioak, ametsak eta birrindutako automobil bat utzi zituen bazter batean Ratzenbergerrek.

Hurrengo egunean, pilotu batek Austriako bandera gorde zuen, podiumera igotzekotan, Ratzenbergerren omenez erakusteko asmoz. Baina ez zuen posible izan. Pilotu hori Ayrton Senna zen. Lasterketa hartan hil zen Senna handia. Hori bai. Hori guztiek gogoratzen dute.

1994ko udaberria zen Italian.

12 ETXERA DEITU DUZU

Dorrearen azkeneko solairutik ikusten duzu eguzkia ezkututzen. Dena dago argiz ureztaturik. Dena dago egon behar duen bezala, ez baitago beste egoteko modurik. Ez da aldatuko. Hoteleko gelan duzun telefonotik etxera deitu duzu, baina gero ohartu zara. Jadanik ez duzu etxerik. Norbaitek hartu du deia, ordea. Zu zara, beste momentu batean. Beste zu bat zara. Urrutiko zu bat, ia ezezaguna zaizuna. Elkarrekin hitz egin duzue. Solasaldi atsegina izan da. Barkatu egin beharko zeniokeela pentsatu duzu. Zure zuarekin bake hitzarmena sinatu.

13 EZ DA BERRIRO GERTATUKO

Xabier jo dut historia liburuaren 237 orrialdeekin. Bi kolpe gurutzatu Wimbledon-eko izarren elegantziarekin, dena esan beharra dago. Espediente bat irekiko didate, elegantea hau ere. Xabier jo dut "jo nazazu" esan didatelako isekaren distira zuten haren begiek. Eta nik begiei kasu egin, itsu. Horrelakorik ez duela gehiago onartuko esan dit zuzendariak bere bulegoko epaitegi gorenean. Nabari da aspaldian ez dela ikaslerik pasa handik. Ondo usaintzen du. Ez da negar eta izerdi nahasketaren arrastorik. Horiek korridorean gelditzen dira.

Dutxa bat behar dut.

14 ZORIAK

2027 urtea, Euskadi Estatu Libre Harpidetuan. Zozketa eguna, zoriko demokrazian. "Demokraziaren festako" tonbola. Whiski bat jarri dio Andonik bere buruari. Urik gabe. Izotzik gabe. Whiski bat bere whiskitasunean, urduritasunari. Hauteskunde sistema erabaki zenean ideia ona iruditu zitzaion gehiengoari. "Baina demontre, ni izan ninteke lehendakari". Eta "ni" dioenean, edanarekin eta emazte ohiarekin arazoak dituen batxilergoko irakasle deprimitu bati buruz ari da. Barne saileko burua (aurreko legealdiko zozketan ateratako Legazpiko harakina) ENAren zenbakiak irakurtzen hasi da. Eta izenak atzekoz aurrera. "Hankak eta abizenak aurretik", pentsatu du whisky botilari azken tantak astinduz. "34228649A Lasa Ruiz, Andoni". Lehendakari.

15 ZITA HISTORIKOA

Etixeraino gerturatu zuen, eta atariko atea itxi arte itxaron zuen aterkipean. Formaltasunaren formetan oinarritutako zita izan zen hura. Ponpa edukatua. Carlosek aukeratutako jatetxe tradizional batean egin zuten hitzordua. Carlosek aukeratutako erreserba handiko ardoa eta Carlosek aukeratutako janaria, esaldi solteekin tartekatu zituen berak. Ahal izan zuenean, eta desadostasunen bat adierazteko. Solasa Carlosek aukeratu zituen gaien inguruan joan zen, solemne azalean, arinki inporta zuenean. Zerbait edatera joateko proposamena ez zitzaion Carlosi aproposa iruditu. Etxera eramango zuen.

Hurrengo egunean, ez zuela berriz ikusi nahi esateko deitu zion Carlosi. Ezer erabakitze eskubiderik ez duen loreontzi bat sentiaraztea ez zitzaiola batere gustatu. Eta kolpe batekin utzi zuen telefonoa. Gau osoan prestatutako hitzak ziruditen. Amorruez mozorroturik.

“Beste neska liberal bat, Isabel hori”, pentsatu zuen Carlosek, bizarrak gain, garrantzia ere kendu nahian. “Lege naturalak aldatu nahi dituzten horietarikoa, ziur”.

16 ZALANTZAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN

Zenbait pertsonarekin gertatzen zait. Tira, birekin nagusiki. Ez dakit bizirik ala hilik dauden. Eta hilik baldin badaude, ez dakit noiz hil ziren. Ez al nintzen enteratu? Ez al zuten telebistan berria eman? Egunkarietan? Irratian? Interneten? Dena ahaztu dut ala bizirik daude? Zalantzak irauten duen bitartean, berpiztu egiten ditut, edo inmortalak bihurtu hala nahiago baduzu. Posible da oraindik bizirik egotea. Matematiko-biologikoki, behintzat. Konprobatu egin behar. Ez. Hilik daude. Aurreko batean begiratu behar izan nuen bezala, beti hilik. Wikipediaren ohiko egiaztatzearekin heriotza data bat jartzen diot hilarriari. 2004ko ekainak 5. 2008ko apirilak 7. Ondoren, lurperatu egiten ditut berriz, hurrengora arte. Ronald Reagan eta Charlton Heston-ekin gertatu izan zait azken urteotan. Etorkizunean, auskalo. Zurekin agian.

17 KONTENEDOREA

Laztana, ez zitzaidan inolaz ere burutik pasa horrelakorik gerta zitekeenik. Aurretik beste neskekin bezala, diskrezio handiz sartu nituen zure gorpuaren zatiak kontenedore hartan, zabor poltsetan bildurik. Ez, ez zitzaidan okurritu kontenedoreak arratsalde nahasi hartan Bulebarraren erdian bukatuko zuenik, iraulita, erretzen. Eta zure zatiak asfaltoan zabalduko zirenik, eztanda baten ondoren bezala. Hanka. Oina. Eskua. Bular bat. Manifestariak eta ertzainak izoztu egin omen ziren zure inguruan. Koktelak eta gomazko pilotak albora utzi zituzten, mutu eta zurbil. Hori omen diote lekukoek. Ez dut egunkaria erosi. Ez zait politika interesatzen, sentimentalegia naiz.

18 SOKARI HELTzea

Gertatzen zaizu. Ingurura begiratu eta zurea da ezagutzen ez duzun aurpegi bakarra. Ez dakizu “hauena” ala “besteena” zaren. “Hori sokakoa da” entzuten diozu beste “soka” batekoa denari. Eta “sokaren” bati heltzen saia zintezke. Baina ziurrenik kalanbrea emango lizuke. Lehenago. Geroago. Edo ia beti.

19 DENA AGORTZEN DENEAN

Agian, behingoz dena agortzen denean, galdu dezakegun guztia galtzen dugunean, etekin posible txikiena ere desagartzen denean, ametsik, ilusiorik, aukerarik gabe gelditzen garenean, benetan pentsatzen eta sentitzen duguna esateari ekingo diogu, bere inozokerian, gordintasunean eta gupidarik gabe.

20 BIZITZA KIKILDUTIK

Ez nion inolako sinpatiarik. Ez, ez nuen soportatzen. Ausarta zen, lotsagabea, desafiantea. Ikasketak bukatu genituen ekain hartan ikusi nuen azkenekoz, eta ez nuen faltan bota. Ez nintzen irribarre harro hartaz akordatu ere egin, egia esan, harik eta baten batek esan zidan arte elur-jausi baten azpian desagertu zela Pirinioetan, norbait salbatu nahian. Heriotza ausart, lotsagabe, desafiante bat izan zela iruditu zitzaidan nire bizitza koldar, lotsati eta kikildutik.

21 ARTIKULU BOROBILA

Ordenagailu pantailaren aurrean zain irudikatzen nuen. Pijaman, eguneratze botoia behin eta berriz sakatzen. Insomnioak eta asperdurak desitxuratutako aurpegiarekin. Artikulua argitaratu bezain pronto agertzen zen haren iruzkina. Puntuala. Anonimoa. Iraingarria.

“Putaseme bat zara eta ez duzu ideiarik”, egun onenetan.

“Zu bezalakoengatik dago mundua horrela, subnormal hori”, nazkak bereziki jipoitzen zuenean. Bere gorrotoarentzat idazten amaitu nuen. Nire artikulu bakoitza erabat borobila egiten zuen er- tzarentzat.

Minutuak beranduago, moderatzaileak ezabatu egiten zuen arrastoa.

22 JENDEA ENGAINATU GENUEN

Jendea engainatu genuen harreman bat genuela esan genuenean. Zure laneko afari batean izan zen, ez zenuen norekin joan, eta ofizina hartan marikoia zinela esaten hasiak ziren. Nik “eta zer?” galdetu nizun, pentsa zezatela nahi zutena, hau mundu libre bat zela; baina, dirudienez, nire diskurtsoak ez zizun gehiegi balio izan. Beraz, afari hartara zurekin joateko eskatu zenidan, garrantzitsua zelako, zuretzat, enpresarentzat eta bake unibertsalarentzat, antza denez, eta momentu txarren batean harrapatuko ninduzun. Gau hartan gure antzerkia hain ondo egin genuen, hain ondo atera zitzaizkigun muxu horiek, non orain engainatu egiten baitugu elkar, batak besteari harremanik ez dugula esaten diogun bakoitzean.

23 TELEFONO DEIAK

Etxera deitzen zidan adarra jotzeko. Klaseko beste mutilen bat zela esaten zidan. Nirekin maitemindurik zegoela. Baina nik banekien ez zela beste inor. Iñaki zela, barreari eutsi ezinik ezeztatzen zuen arren. Hilabeteak igaro nituen joko hori jasaten, inori esan gabe. Nahiko patetikoa iruditzen zitzaidan. Nahiko marjinala egiten ninduen. Etxean sufritzen genuen, pazientziarekin, arratsalde batez aitari aski zela iruditu zitzaion arte. Aita, aitek bakarrik duten amore horrekin, arriskatu egin zen (orduaz ez zegoen zenbakia txibatzen zuen pantailarik). Deia entzun, nire lekuan isilik geldi nendin eskatu, eta, telefonoa hartzerakoan, “Cuartel de la Guardia Civil, ¿dígame?” serio eta grabe batekin erantzun zuen. Berehala heldu zitzaion bueltan telefono eskegiaren tu-tu-tu-tu-a.

-Atzokoa ez nintzen ni izan, e? -ahotsak oraindik dardara egiten zion biharamuneko jolas orduan.

-Zu ez zinen izan zer?

Buelta erdia eman eta alde egin zuen. Tu-tu-tu-tu-a. Ez zuen berriz deitu.

24 ORDU JAKIN BATETIK AURRERA

Ordu jakin batetik aurrera, bakarrik bizi garenak soilik gelditzen gara sarean. Zu, ni eta telebistan dagoena komentatzen duen hori. Ordu jakin batetik aurrera, erantzun bakoitzak norbait jartzen du sofa desorekatuaren beste aldean. Irudikatua. Platonikoa. Arrazoia eman edo gatzik gabeko txiste txarrekin barre egingo dizun norbait. Egun txarra izan duzu. Nahi gabeko eta zoriko ulerkortasunaren ehizan zabilta. Eskutik helduko dizu. Ez den bezalakoa maitatuko duzu zuk. Ez du izenik. Ala dozena bat izen ditu.

25 KAFE MAKINA

Tanatorioko kafe makinari kolpe amorratuak emateak ez dio arreba bueltan ekarriko. Ezta makinak itzuli behar dizkion txanponak ere. Hor nonbait gelditu dira arrebaren bizitza eta txanponak. Errepide komarkal batean. Makinaren ezkutuko bide ilunetan. Kolpeak eman ditzake berak, nekatu arte. Ez du mina besterik sentituko. Hobe du kafea hartu, hoztu baino lehen. Bueltarik ez duten bueltak ahaztu. Eguneroko martxa deskafeinatuari ekin. Azukrerik gabe.

26 ELEKTROKUTATUAK

Herrian oraindik gogoratzen dute nola erori zen elektrizitate zutoina, nola erori zen kablea, eta nola erori zen hilik eta elektrokutaturik gizon hura, ekaitzaren erdian. Kontatzen dute emaztea korrika batean joan zitzaiola eta, atsekabez besarkatzean, elektrokutatu egin zela bera ere. Alaba bati, gurasoei heldzean, gauza bera gertatu zitzaiola. Eta baita seme zaharrenari ere, arreba salbatu nahian. Hori dena kontatzen dute herrian oraindik. Herriko plazan bildutakoek ikusi zutela tragedia osoa eta haiek izan zirela Nestor txikiak senideen patua errepikatzea eragotzi zutenak. Herriko jendeaz inguraturik, Nestor munduan bakarrik gelditu zen, baina hori ez dute horrela kontatzen.

27 KARISMAREN IZENEAN

Gelako izarra zen. Mutil guztiek gustuko zuten neska. Andereñoaren kuttuna. Beste neska guztien laguna. Edo horrelako zerbait. Ziur nago, gure hesteetan, ez genuela inork jasaten. Baina haren karismaren menpe bizi ginen, neskak, mutilak, parasitoak. Nahi ala ez. Norbaiten karismaren menpe bizi behar dugulako beti. Eta, karisma horren izenean, korrika egin nuen berarengana gertatzen ari zitzaiona ikusi nuenean. Berari begira nengoelako. Beti begira. Txirristatik jaistera zihoala, bere poltso txiki dotorearen soka trabatu zitzaion, lepoa estutuz. Itotzen ari zen. Gero eta gorriago. Txirristara igo eta askatu egin nuen. Salbatu. Karismarik ez dugunok karisma dutenak beti salbatzen ditugun bezala. Abandonatzeko tentazioarekin. Eta, azkenean, eskerrik jaso gabe.

28 MARC CHRISTIAN MACGINNIS

Hudson. Rock Hudson. 1985ean hiesaren ondorioz hil zen aktorea. Doris Day-ren partenaire hura. Marc Christian MacGinnis izan zen Rock Hudsonen azkeneko maitaleetako bat. Los Angeles Times-en aurkitu nuen haren historia. Beste edonork bezala, MacGinnis-ek telebista bidez izan zuen Hudsonen gaixotasunaren berri. Baina bera ez zen beste edonor. Aktorearen babesik gabeko maitalea zen. Hudsonen funerala

izan eta gero, epaitegira eraman zuen kasua, bere ezjakintasunarengatik konpentsazio bat jasotzeko asmoz. Etekin ederra atera zuen.

Musikazale eta bildumagile hura 2009an zendu zen, 56 urte zituela. Baina ez zen Rock Hudsonengatik izan, Frank Sinatrarengatik baizik. Konpultsiboki erretzen hasi omen zen Sinatra hil zela jakin zuenean. "Asko maite zuen Sinatra", esan zuen arrebak. Ez zen auzirik egon horregatik.

29 ESZENA EDER BAT

Deia jaso eta ordu erdi geroago apartamentura iritsi zenean, gorpu biluzia odol putzu batean zegoen oraindik, hondartzan lehorreratu den balea baten antzera, itsasgorak berriz bueltan noiz eramango zain. Ohea txukun egina. Gauza guztiak beren lekuan. Mesanotxean telefono mugikorra zuen. Hiru dei galdu. Irakurri gabeko mezu bat, bere buruari bidalia.

"Eszena eder bat utzi dut. Ez esan ezetz".

Ezin zion odolezko itsaso gorriaren mareari begiratzeari utzi.

Ezin zuen ederra ez zenik esan.

30 ARDOA

Ez. Ardoa ez, mesedez. Jaunartzeko egunean zeraman soineko luze, zuri, almidoiztatuarekin ez zegoen ardoz beteriko kopa hori eramaterik. Azkeneko afarian Jesussek zergatik ez ote zuen ura erabili, pentsatu zuen. Ginebra, tonika, zerbait gardena (hori pentsatzen du gaur). Elizako korridore zentral amaigabea zuen aurrean. Familiak alboetan, begira. Argazki kamerak, flashak. Eta eskuetan, kontrolatu ezin zezakeen dardara bat. Zergatik ez zuen ura erabili. Zergatik ardoa. Gorri koloreko ardo ilun hori. Odolaren antza zuelako. Odola zelako. Jesusena. Hori irakatsi zioten eta hori agindu. Odola eraman behar zuela korridorean barrena. Estropezu egin eta bere soineko zuri inmakulatuaren gainean erori ziren ardoa, odola eta fedea.

31 BIZI GAREN BEZALA

Munduan bizirik aurki ditzakezun pertsonak bezainbeste modu dago hiltzeko. Eta hala ere, kategorietan sailka genitzake, bizitzak bezala, heriotzak ere. Istripuak, hilketak, ospitaleko azken uneak, zazpigarren solairutik salto egindakoak, eta gertatu eta handik egun batzuetara apartamentuko ate azpiko zirrikitutik usainak azaleratzen dituen heriotza bakarti, isil eta anonimoak. Adibidez. Bizi garen bezala hiltzen baldin bagara, sukaldean aurkituko dute nire gorpua. Labana esku batean, ireki nahi nuen janari prestatuaren kaxa gainplastifikatua bestean.

32 AZALPENAK

Duela berrogeita bi urte ezkondu zen, gazte eta nahiko urduri. Maitemindurik, baina ez gehiegi. Bi seme-alaba izan zituen. Eta haiek ere izan zituzten seme-alabak. Noizbehinka zaindu behar izaten dituelako daki hori. Besteen munduak biraka jarraitu duela onartzen saiatzen den arren, ahaztu egiten zaio salako atetik senarra telebistari begira ikusten duenean. Lo. Lo dago bere mun-dua ere.

Tipula zati txikitik moztera abandonatzen da. Egunero erabiltzen du tipula sukaldean. Eta egunero egiten du negar. Senarrak, esnatzean, mahai gainean aurkitzen du zergatia. Ez du beste azalpenik behar. Ez du beste azalpenik eskatzen.

Goxoa dago gaur ere bazkaria.

33 PELUSAK

Erratzarekin jasotako pelusak patioko leihotik behera botatzea bizitzeko modu baliagarri bat dela erabaki du bizilagunak. Alde bakarreko erabakia izan da, anonimotasunak eta grabitateak babestua. Zintzilikaturik dudan arroparen gainean erori dira. Arropa astindu eta nire sukaldean daude orain. Erratzarekin jaso berri ditudan nire etxeko pelusen antza dute. Batu egin ditut, nahastu eta konfunditu. Eta, bitan pentsatu gabe, patioko leihotik behera bota ditut. Azpian bizi denaren arroparen gainean erortzen ikusi ditut. Hor daude, suspentsioan. Gure egunerokotasunak. Hautsak. Ileak. Apurrak. Miseriak. Pelusak. Existentziaren katea.

34 AITORPENA

Berrogeita hamalau urte ditut eta ez nuen inolaz ere neure burua honelako egoera batean irudikatzen. Ez mezu hau bidaltzen. Ez esan nahi dizkizudanak esaten. Zaila egiten zait. Ez naiz inoiz bereziki trebea izan harreman sentimentalaren arloan. Lotsa deitu izan diot beti, baina baliteke beste zeozer izatea. Ezintasuna.

Zintzoa izan nahi dut oraingoan. Zurekin inorekin baino gehiago. Orain inoiz baino gehiago. Hala merezi duzulako. Hala behar duelako.

Hau da nire aitorpena:

Ez dut zu bezalako inor ezagutu. Ez dut zu ezagutu zaitudan bezala inor ezagutu. Eta ez dut ezagutuko. Ez dut hala nahi izango. Ez da hala izango.

Lotsa deitu izan diot beti, baina baliteke beste zeozer izatea. Nazka.

Eta orain, utz nazazu bakean. Alde egin betiko. Ez segitu berriz. Ez deitu berriz. Mesedez.

35 TUMOREA

Josebaren familiak gorroto du.

Amaren aldekoak. Osaba-izeba eta lehengusu aparatu konplexu horrek. Bazkarian argi utzi dute, begiraden gurutzaketa eta sarkasmo fina erabiliz, aurreko neska-lagun jator eta eder eta on eta apropos haren aldean, azkenaldian Josebari atera zaion tumore bat iruditzen zaiela. Tentsioa jasangaitza izango zaion itxaropena dute. Edo, zorte pixka batekin, haragi zati bat kontrako eztairitik joan eta bertan geldituko den esperantza. Zati handi bat zerbitzatu dio Josebaren amak, insistentziarekin.

36 SISTEMA

Bururik gabeko haragi masa itxuragabe baten antzera hazi eta hezi zuten, bere belaunaldiko gehienekin gertatu zen bezala. Antisorgailuak erabiltzeari utzi zioten gurasoek denbora batez, adinari zegokiona zelako, eta bera izan zen ondorioa. Bere

jaiotza eta gero, antisorgailuak itzuli ziren lehenengo eta, buruari buelta bat eman ostean (ez gehiago), behin betiko ebakuntza. Bai amak, bai aitak. Badaezpada ere. Hezkuntza sistemaren esku utzi zuten, ahal bezain pronto. Espetxe sistemaren esku utzi zuten ondoren, nolabait lasaiturik. Erretiro sistemaren onurak gozatzen dituzte orain, eta ez dira berarekin gehiegi akordutzen.

37 EDERRENA

Makillatu egin naute. Ondo jantzi. Itxura on bat eman. Eta garrantzitsuena dena: gaur isilik nago. Ez dut hanka sartuko. Ez dut, besteetan bezala, inor asaldatuko duen ezer esango. Arrazoa izango dut eta arrazoa emango didazue. Nire inguruan bilduko zarete horretarako.

Gaur ni naiz tanatorio honetan ederrena, zalantzarik gabe. Eta zuek guztiak, negarrak desitxuratutako munstroak.

38 GABRIELA

Maitatzeko ordaintzen duten horietarikoa da. Maitatzeko igandetako trajea, gorbata eta kolonia jarri eta ilea alde batera orrazten duten horietarikoa. Atea jotzen dutenean ez daki beste aldean nor aurkituko duen. Beti emakume bera eskatzen du eta beti desberdina bidaltzen diote. Gabrielarengatik galdetzen du. Baina datorrenak ez du inoiz Gabriela ezagutzen. "Nik denbora gutxi daramat hemen", esaten du beti. Atsekabeturik, ez biluzteko eskatzen dio, eta aurretik ordainduriko ordubetea ohean eserita igarotzen dute, isilik. Agur esateko unean beti gauza bera eskatzen die: "Gabriela ikusten baduzu, faltan botatzen dudala esan". Itxaropena gordetzeagatik ordaintzen du.

39 ESKAERA ORRIA

- Zure eskaera orria irakurri dugu, Gomez andereñoa.
- Bai.
- Luzea da.
- Pixka bat.
- Gure datu-basean ez dugu horrelakorik, tamalez.
- O.
- Hala ere, zure kasua aztertu eta aproposagoa den zerbait aurkitu dugu.

Gomez andereñoa panpina puzgarri batekin atera zen bulegotik, traje urdin bat zeramana. Bazkaltzera gonbidatuko zuela esan zion. Berak prestatutako legatza jango zutela. Eta gero, arroz esnea. Ez zuela ezetzik onartuko. Gustatuko zitzaiola. Ziur.

40 ZERBAIT BEROA

Bi lagun minenak galdu ditu gaur eskolan. Haserretu egin da haiek bere neba zaharrari zuzendutako isekengatik. Betiko galdu dituela badaki. Barkamenik ez dagoela badaki. Zeru grisen euripean zeharkatu dituzte zelai zabalak nebak eta berak. Etxerako bidea luzea da eta eskutik heltzen dio. Udazkena luzea da eta horrek triste jartzen du neba. Burlek min handiagoa ematen dute egun euritsuetan. Zin egin dio nebari etxean aldatuko dituztela blai egindako arropak. Han lehortuko dutela ilea. Etxekolanak egiten lagunduko dio. Zerbait beroa hartuko dute. Bihartik aurrera eskolan bakarrik egongo dela ahaztuko du.

41 LIDL-EKO TXOKOLATEEN KORRIDOREA

Lidl-eko txokolatearen korridorea heriotza da (batez ere diabetikoentzat). Heriotza da berdindu egiten gaituelako. Patchouli usaineko emakume eleganteak eta ni bezalako espeziemenak. Hurrengo korridorean poteko janari merkeak daude. Hurrengo korridorean, duintasun hori eta bestelako baliabiderik ez dugunak bakarrik gelditzen gara.

42 DESILUSIOAREN MUGAK

Ez dakit zenbat gerratan amore emateko gai ote den gizakia. Muga bat ote dagoen desilusiorako. Ez dakit Austriako unibertsitatearen bateko ikerlariren batek adierazi ote duen hogeita hamazazpi etsipenetik gorako kasurik ez dela ezagutu. "Arratoi bati berrogei bat atsekabe sakon eragiten ari gatzaizkio, ea zer gertatzen den". Horrelako zeozer. Erlatibizatzen lagunduko lidake. Izen bat jartzen. Uneko sentiberatasuna. Alukeria kronikoa.

Ez naizena. Ez dudana. Ez dena. Uste nuena eta aldatuko ez dena. Horri buruz ari naiz. Ulertzen, Helmut? (Zertan ari den galdetu diot Helmut-i. "Laborategiko lanak", erantzun dit salaren beste aldetik. Lasai, ez dudala molestutzen.)